

5- Kanalak

Gure enpresak, ez du ezer materiala eskaintzen; orduan, gure kanalak ez dira banaketan oinarritzen, komunikazioan baizik. Hau da, gure enpresa ikuspegi publikora heltzeko erabiltzen ditugun metodoak azalduko ditugu.

Lehenik, **webgune** (www.babysittergasteiz.org) bat daukagu; bertan, berritasunak eta oharrak igo ditzazkegu bezeroei jakinarazteko, gure informazio orokorra adierazi dezakegu, argazkiak igo ahal ditugu, ordutegia jarri ahal dugu, etabar.

Bigarrenik, Jareren esku ditugu **sare soziala** aktiboak. Honek baimentzen digu gure enpresaren garapena erakusteko, argazkiak igotzeko, baita ere oharrak jakinarazteko, ...

Baita ere, **publizitatea** egiten dugu; hau da, kalean kartelak ditugu, iragarkiak telebistan ditugu eta irratan ere gutaz hitz egiten dute.

Azkenik, **iritzi publiko** on bat izaten saiatzen gara; gure bezeroak pozik egoteko eta haien fideltasuna lortzea da gure helburuen barruan dagoen beste puntu bat. Gure bezeroen beharrak ondo asetzen arduratzen gara, haiek iritzi on bat izateko gutaz eta horrela gure enpresa jende gehiagorengana heltzeko.

